

Berrikuntzaren hizkuntza





Sarrera

Berrikuntzaren hizkuntza

Hizkuntza bat zeinuen sistema bat da eta komunitate batek erabiltzen du komunikatzeko; hizkuntzari esker, komunitate hori elkartu egiten da eta bertako kideak bertako partaide sentitzen dira. Hizkuntzak definitzen gaitu eta dirudiena baino gehiago esaten du guri buruz. Gainera, eraldatzeko gaitasuna du. Hitzak indartsuak dira eta dagoen estimulurik handiena ere badira, eraldatu egin dezakete eta esaten duenean aldaketa handiak eragin.

Innobasquen kontzeptu batzuk definitzeko beharra sentitzen dugu, garrantzitsuak direla uste baitugu gure jarduera mugitzen duten motorra direlako. Egunero erabiltzen ditugun terminoak izan arren, erakundeko pertsona guztiok horien esanahia ez genuela berdin ulertzen edo ez genuela partekatzen sumatzen genuen.

Horrela sortu zen hiztegi txiki hau, Innobasqueren berrikuntzaren hizkuntza, Euskadiko berrikuntzaren inguruko lengoia eraldatzailea. Gure xedea da egunero erabiltzen ditugun 12 kontzeptu hauen bidez hobeto ulertaraztea geure artean, berrikuntzaren potentziala baitute: zeharkakoa, erakunde bazkideak, helize laukoitza, gizarte-berrikuntza, lehiakortasuna, parte hartzea, elkarlana/kooperazioa, elkarlaneko berrikuntza,

itun publiko-pribatua, ahalduntzea, berrikuntzaren ekosistema/Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea/Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema, eta berrikuntza.

Euskadiko berrikuntzaren inguruko lengoia eraldatzailea

2017an 10 urte beteko ditu Innobasquek. Urte berezia da, aproposa ideia hauen esanahia argitalpen txiki honetan jasotzeko; izan ere, Euskadi herrialde berritzaile bihurtzeko Innobasquen lan egiten dugun talde osoaren hausnarketaren, eztabaidaren eta adostasunaren emaitza da hau.

Identifikatutako beste hitz batzuk ere, prozesuan zehar sortuak, landu beharra dago; beraz, partekatutako esanahiak gehituz joango gara. Egiten dugunaren garrantzia hobeto ulertzeko baliagarriak izatea nahi genuke. Lortuko ahal genuen!




Glosarioa

- Ahalduntzea
- Berrikuntza
- ZTBES vs Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema vs Berrikuntzaren ekosistema
- Elkarlaneko berrikuntza
- Elkarlana/Kooperazioa
- Erakunde bazkideak
- Gizarte-berrikuntza
- Helize laukoitza
- Itun publiko pribatua
- Lehiakortasuna
- Parte hartzea
- Zeharkakoa

“

Ahalduntzea

Banako edo taldeko prozesua da, eta norbere gaitasunetan konfiantza izaten laguntzen du, lehen erabakiak hartzeko gaitasunik ez zuen pertsona edo talde batek gaitasun hori lor dezan, denen mesederako.



“

Berrikuntza

Pertsonen, erakundeen eta lurraldeen (erre) boluzioa egungo eta etorkizuneko erronkak konpontzeko, hobetzeko, aurrera egiteko eta errealitate berriei aurrea hartzeko.





ZTBES vs Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema vs Berrikuntzaren ekosistema

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (ZTBES): Eusko Jaurlaritzak zientzian, teknologian eta berrikuntzan kreditatutako erakundeak.
 - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema: ZTBESen, beste erakunde batzuen eta herri administrazioen arteko elkarrekintzak.
- Berrikuntzaren ekosistema: aurreko horien guztien eta beren inguruaren arteko harremanak.




Berrikuntzaren hizkuntza

“

Elkarlaneko berrikuntza

Berritzeko beste modu bat, kasu honetan
erronka komun baterako irtenbide berriak
sortzeko beren gaitasunak batuz desberdinak
inplikatzeko dira.


innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia agencia vasca de la innovación



“

Elkarlana / Kooperazioa

Partekatutako helburua eta erabakitzeko gaitasuna dago bietan, baina inplikazio mailan dago aldea. Berrikuntza arloan, lan-prozesuan norik bere baliabide eta gaitasunekin parte hartzea da elkarlanean aritzea.



“

Erakunde bazkideak


Formalki atxikitako erakundeak edo pertsonak, Innobasque proiektuan sartzeko borondatez, Euskadin berrikuntzaren sustapenean zati aktibo izateko.



“

Gizarte-berrikuntza


Gizartearen beharrei eta eskariei erantzuteko balioa erantzen duten ikuspegi eta aldaketa berriak sartzeko modua, gizartea kontuan izanda eta gizartea eraldatzeko asmoz.



“

Helize laukoitza


Batera lan egiten duten lau taldeek (enpresek, ezagutzaren eragileek eta eragile zientifiko-teknologikoek, gizarteak eta administrazioak) helburu komun baterako berritzen dute.



“

Itun publiko pribatua


Administrazioen, erakundeen eta herritarren arteko akordioa, interes komunaren alde batera lan egiteko.



“

Lehiakortasuna

Dauden alternatibak hobetzeko besteengandik bereizten gaituzten abantailak sortzeko gaitasuna.




Berrikuntzaren hizkuntza

“

Parte hartzea

Pertsona eta erakunde desberdinen artean
asmatu, eraiki eta partekatzeko modua,
erabakietan eta ekintzetan parte hartuz.


innobasque
berrikuntzaren euskal agentzia agencia vasca de la innovación



“

Zeharkakoa

Arlo askotan eragina duena eta hainbat ikuspegi edo egiteko eta pentsatzeko modu sartzen dituena, ikuspegi bakarrak saihestuz.





Innobasque, berrikuntzaren euskal agentzia

Irabazasmorik gabeko **erakunde pribatua** gara, erabilera publikoa dugu eta 1.000 bazkide baino gehiago gara. **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile berezia** gara eta Eusko Jaurlaritzari laguntzen diogu berrikuntzako politika berriak diseinatzen, ezartzen eta sustatzen.

Lankidetzaren sare eraginkorra osatzen dugu, **itun publiko-pribatuan** eta berrikuntzaren **helize laukoitza** du: enpresak, erakunde publikoak, eragile zientifiko-teknologikoak eta gizartea.

Gure gunean berrikuntza dago, gizarte eta ekonomia arloko eraldakuntzaren motorra baita Euskadi iraunkorrerantz joateko. Hainbat dimentsio ditu berrikuntzak eta Euskadiko erronka sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak konpontzeko gai diren irtenbide berritzaileak eraikitzeko giltzarria da. Denon artean elkarlanean sortutako balioa da, gizarte-harreman berriak sortuz eta gizartea eraldatzen eta horretan eragiten duten gizarte-harreman eta lankidetzaren eredu berriak sortuz.

Gure ametsa da Euskadirentzat nahi den etorkizunik hoberena eraikitzea. Europako berrikuntza alorreko erreferenteak izatea nahi dugu 2030ean.

www.innobasque.eus

innobasque@innobasque.eus

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea
Laida Bidea 203 - 48170 Zamudio

Tel.: +34 944 209 488



Innobasque

innobasque guztiok gara

berrikuntzaren
euskal agentzia

agencia vasca
de la innovación